Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Plana I. Berdintasun Planaren ebaluazioaren eta etorkizunera begirako erronken inguruko hausnarketaren emaitza da. Planak hurrengo urteetako ardatz eta helburuak zehazten ditu, halaber, helburu horiek lortzeko ekintza zerrenda jasotzen du. Dokumentu hau oinarritzat harturik, urtero berdintasunaren inguruko plangintza definituko da.

El II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria 2013-2016 es el resultado de la evaluación realizada al I. Plan de Igualdad y la reflexión realizada sobre los retos de cara a futuro. El Plan define los ejes y los objetivos a perseguir en los próximos años, así como una batería de actuaciones que se pueden llevar a cabo para la consecución de dichos fines. Teniendo este documento de base, anualmente se definirá la planificación a llevar a cabo en materia de igualdad.

Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2013ko martxoaren 12an, Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Planaren aldeko txostena igorri du, edukiak Eusko Jaurlaritzak

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, con fecha 12 de marzo de 2013, ha emitido informe favorable en lo relativo a la adecuación de los contenidos del II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

onartutako V. Planak dituen jarraibide eta gidalerroekin bat datozela zehaztuz.

Errenteria a las líneas de intervención y directrices previstas en el V . Plan aprobado por el Gobierno Vasco.

Udaleko Berdintasunerako Teknikariak, 2013ko apirilaren 17an, aldeko irizpena eman du.

Con fecha 17 de abril de 2013 la Técnica para la Igualdad del Ayuntamiento ha emitido informe favorable.

Berdintasunerako Informazio Batzordeak, 2013ko apirilaren 23an gaiari buruz aldeko irizpena eman du, bere onarpena proposatuz-

Con fecha 23 de abril de 2013 la Comisión Informativa de Igualdad ha dictaminado favorablemente el asunto, proponiendo su aprobación.

Udal Aholkulari Juridikoak, 2013ko maiatzaren 14an, Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Plana onartzearen aldeko irizpena ematen du.

Con fecha 14 de mayo de 2013 la Asesora Jurídica Municipal informa favorablemente la aprobación del II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria.

Udaleko Berdintasunerako Teknikariak, 2013ko maiatzaren 14an, informatzen du Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Planean Emakundek- Emakumearen Euskal Erakundeak egindako gomendioak jaso direla.

Con fecha 14 de mayo de 2013 la Técnica para la Igualdad del Ayuntamiento informa haber recogido en el II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria las recomendaciones propuestas por Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoak 21.1 s) artikuluan emandako eskumenez baliatuta,

Por lo que antecede, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud del artículo 21.1 s) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local,

**ERABAKI DUT**

**RESUELVO**

1.- Onartzea Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana 2013-2016.

1.- Aprobar el II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria 2013-2016.

2.- Alkatetza dekretu hau Udalbatzara eraman berrestu dezan, eta Planaren eraginkortasuna berrespen horretara baldintzatu."

2.- Llevar este decreto de Alcaldía al Pleno de la Corporación para su ratificación, y supeditar su eficacia a dicha ratificación."

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du, Idazkariak aitatu duen moduan, gai hau Alkateari dagokiola, baina, bere iritziz, denek irizpena eman eta bozkatu beharrekoa da.

* Interviene el Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señalando que, como ya ha mencionado la Secretaria, éste es un asunto cuya competencia coresponde al Alcalde, pero piensa que es un tema en el que todos deben opinar y que todos deben votar.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du bat datorrela Alkatearen iritziarekin. Alegia, Berdintasunerako bigarren Plangintza hau Udalaren konpromisoa izan dadin eta ez soilik Batzorde edo Alkateak dekretu bidez harturiko akordioa. Gaineratu duenez, hau garrantzitsua da, berdintasunean bizitzeko garai txarrak direlako. Izan ere, aurreko astean 48 ordu barruan lau emakume erailak izan ziren, eta aurreko larunbatean, Oiartzunen, 18 urteko gazte batek beste gazte bat erasotu zuen, berak duen informazioaren arabera, Errenteriakoa. Zentzu horretan, beste udal eta erakundeek ez bezala -berdintasunean elkar bizitzea sustatzea bilatzen duten politikak murriztu eta ezabatzen ari direnak-, Errenterian beste bide bat hartzen ari dira, bere aburuz, pozteko modukoa, eta ibili beharreko bide bat egiteko konpromisoa hartzen ari dira. Ibilbide hori hein batean egin dute bere garaian onartu zuten lehenengo Planarekin, eta bigarren plan honek izan behar du egiteke duten bidearen baieztapena, batez ere, lehen aitatu dituen erakunde horiei aurre egin behar dielako, baita ziur aski laster onartuko diren lege batzuei aurre egin beharko dielako, horiek ere berdintasunean eragina izango dutelako, besteak beste, batzuetan bazegoela ematen bazuen ere, atzera egin ez dezaten, denen artean aurrera jotzeko.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) señalando que comparte la opinión del Alcalde en cuanto a la importancia de que este segundo Plan de Igualdad sea un compromiso municipal y no única y exclusivamente un acuerdo de una Comisión o una decisión exclusiva del Alcalde mediante decreto. Dice que esto es importante porque corren malos tiempos para la convivencia en igualdad. Sin ir más lejos, la semana pasada en 48 horas cuatro mujeres fueron asesinadas, y el sábado pasado, en Oiartzun, un joven de 18 años agredió a otra joven que, por la información que tiene, es vecina de Errenteria. En ese sentido, frente a otros ayuntamientos y otras instituciones, que lo que están haciendo es recortar fondos e incluso suprimir políticas que buscan fomentar esa convivencia en igualdad, en Errenteria están tomando otro camino que piensa tiene que ser motivo de satisfacción y también una muestra de un compromiso de hacer un camino que hay que andar. Se ha andado en este camino con el primer Plan que se aprobó en su día, y este segundo Plan tiene que ser la confirmación de ese camino por andar, sobre todo, porque tiene que hacer frente a estas situaciones que antes ha comentado, pero que también tendrá que hacer frente a unas Leyes que posiblemente se aprueben en breve y que también van a repercutir en que esa igualdad, que en algunos casos daban por hecha, retroceda, cuando de lo que se trata es de avanzar entre todos.

* Herzog jaunak (PP) esan du eurek kontu hau gizartean bizia beste modu batera ikusten hasteko

* El Sr. Herzog (PP) manifiesta que ellos piensan que éste es el inicio de otra manera de ver la vida en la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

une gisa ikusten dutela; oraindik lehenengo urratsak ematen ari direla; albisteetan ikusten dituzten ezbehar izugarri hauek ematen badira, emakumeak eta gizonezkoak ezberdinak ziren iragan ankerrak ekarritako pentsamendu telurikoak pertsonengan oraindik dirautelako dela. Bere aburuz, egoera honek ez du 2 urtean eta 10 urtean bueltarik emango, baina lan-mota hauek ezinbestekoak dira gutxinaka-gutxinaka gizartean, gutxienez kultura eta sozial maila batekoen artean, berdintasuna sartzen joan dadin. Albiste mota hauek ez izatea edo gutxitzea epe luzean, eurentzat, zinegotzientzat, garaipen bat izango litzateke, nahiz eta, beharbada, denbora pasa ahala jabetu ez, ezta lan honen fruiturik ikusiko ere.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du eurek ere bat datozela gai honek berretsia izan behar duela aitatzen denean, besteak beste, lehenengoa Udalbatzak onartu zuelako, eta hau, gutxienez, berresteko. Denboran atzera eginez, eta lehenengo Plana onartzeko eztabaida gogoratuz, bere Alderdiak zioen uste zuela Plan hura ez zela izango Udalak herriarentzat onartuko zukeen bakarra. Ez du uste profetak izan zirenik, ezta hurrik ere, baina ibili beharreko ibilbidea hain da luzea eta urratsak, nahiz eta eman, hain dira motxak, ezen krisiaren antzera, denbora luzez geratzeko etorri baita. Hala, lehen Plan bat egin zuten, gaur bigarrena berresten dute, eta hirugarren bat izango dela uste du. Euren aburuz, urratsak, nahiz eta txikiak izan, garrantzitsua da aurrerantz ematea eta egiten dena finkatzea, gisa horretan, Errenteriako Ezkerrak zioen bezala, aurrekontu-murrizketengatik edo gizarte gora-beherengatik, atzera ez egitea. Hortaz, esaten nuen moduan, hirugarrena ikusiko dute, baina bigarren Plan hau beharrezkoa da, batez ere bi egoerengatik: alde batetik, Ferradas jaunak zioen moduan, indarkeria matxistaren gorakada begi-bistakoa da. Era zehatz batean abordatu beharreko kontua da,

sociedad, que se está aun en un primer paso, que estos desastres que se ven en las noticias se deben a que todavía permanecen en las personas unos pensamientos telúricos traídos de un pasado atroz en el que los hombres y las mujeres eran distintos. Cree que esto no va a dar la vuelta en dos días, ni en dos años, ni en diez años, pero este tipo de trabajos son imprescindibles para que poco a poco vaya calando la igualdad en las sociedades, por lo menos de cierto nivel cultural y social. Con que deje de haber este tipo de noticias o vayan menguando en un largo plazo, cree que para ellos, los Concejales, será un triunfo, aunque quizás con el paso de tiempo no vean lo que han hecho, ni los frutos de este trabajo.

* Interviene la Sra Peña (EAJ/PNV) manifestando que también comparten el criterio de que el presente es un asunto que tenga que ser ratificado, el primer Plan fue aprobado por el Pleno y éste, al menos que sea ratificado. Echando la vista atrás y recordando el debate de la aprobación del primer Plan, desde su Grupo decían que no creían que fuera a ser el único Plan que se aprobara en este Ayuntamiento para este pueblo. No es que fueran profetas, ni muchísimo menos, pero es que el camino que hay que recorrer es tan grande, y los pasos, aunque se den, son tan cortitos que evidentemente esto ha venido, como se dice de la crisis, para quedarse mucho tiempo. Ha habido un primer Plan, hoy ratifican el segundo y habrá un tercero. Considera que lo importante es que los pasos, aunque sean pequeñitos, vayan hacia adelante y se consolide lo que se va haciendo de manera que, tal y como decía el representante de Errenteriako Ezkerra, por recortes presupuestarios o devenires sociales, no se retroceda. Como decía, el tercero ya se verá, pero este segundo Plan es necesario sobre todo por dos situaciones, por un lado, como ya ha dicho El Sr. Ferradás, el repunte en la violencia machista es evidente, es un tema que


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

gure herrian ere eman dituelako bere kolpeak. Bestalde, krisiak bereziki jotzen du emakumea, eta horrek berdintasunari dagokionean, emakumearen inguruko Aurrerapena atzeratzen du, emakumeen

egitekoa atzeko garaietara itzultzen ari delako. Horregatik, une hauetan bereziki erne eta aktibo egon behar dute berdintasun politiken inguruan, zeren eta, azkenean galtzaile, gizona baino gehiago ateratzen delako emakumea, hots, kaltetuagoa. Hori guztiagatik, uste dute albiste on bat dela bigarren Plana hau onartzea. Eta dena goraipamena izan ez dadin, esan gura du Planak emandako emaitzaren ebaluazio bat egin ez bada ere, beharbada, faltan botatzen dutela diagnosi eguneratu bat, egungo argazkia alegia. Esan nahi baitu, ez soilik Planaren jarduketaren emaitzak, baizik eta, adibidez, immigrazio-diagnosia aurkeztu zaien moduan, iragan lau urtetan zer nolako eragina izan duen, nola mugitu den egoera lau urtez, zer nolako eragina izan duen krisiak lau urtez berdintasun-alorrean eta, beharbada, zer nolako politika bereziak burutu beharko liratekeen. Hala ere, oraindik garaiz daudela uste du. Gaineratu duenez, lehenengo Plana dena egiteke zegoela hasi zuten, eta jakina, egindakoa asko ikusi zen: Kontseilua eratu, Batzordea sortu, teknikaria kontratu, etab. Bigaren Planean, berriz, dena gehiago egituratuta zegoen, eta pittin bat gutxixeago ikusten da, nahiz eta lana aurrekoa bezain garrantzitsua izan. Berak ildo beretik jarraitzeko animatzen du, zeren eta emaitzak, nahiz eta hainbeste ez ikusi, lehengoak bezain garrantzitsuak dira, eta beraz, atzera ez egiteko finkatu beharrekoak. Zentzu horretan animo-mezuak eman nahi ditu.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du –txantxa moduan– batzuetan Peña andrearen (EAJ/PNV) ondoren hitz egitea, hark

hay que abordar de manera específica y golpea también a nuestro municipio. Y en segundo lugar, la crisis golpea de manera especial a la mujer, lo que está haciendo que se retraiga el avance de la mujer

en lo que se refiere a la igualdad, el rol de la mujer está volviendo a pasos anteriores. Con lo cual, hay que estar especialmente atentos y activos en estos momentos hacia este tipo de políticas de igualdad, donde la gran pagana de la crisis, más aun que el hombre, es la mujer, en el sentido de que es más perjudicada. Por todo ello creen que es una buena noticia que se apruebe este segundo Plan. Y para que no todo sean flores, decir que, aunque se haya hecho una evaluación de los resultados del Plan, quizás echan de menos una actualización del diagnóstico, una foto actual, no solamente de los resultados de la actuación del Plan, sino que por ejemplo, tal y como se les ha presentado el diagnóstico de inmigración, qué afección ha tenido en cuatro años, cómo se ha movido la foto en cuatro años, qué incidencia ha tenido la crisis en cuatro años en el mundo de la igüaldad y quizás qué políticas especiales habría que hacer, pero bueno, todavía se está a tiempo. Decían que el primer Plan se empezó con todo por hacer y claro, todo se ve mucho, hay que crear el Consejo, hay que cear Comisión, contratar técnico, etc. En el segundo Plan todo está más estructurado y se ve un poco menos, pero el trabajo es igual de importante y anima a que se siga trabajando con el mismo esfuerzo porque los resultados, aunque no se visualicen tanto, son igual de importantes y es necesario que se consoliden y no se vaya para atrás. En ese sentido un mensaje de ánimo.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) manifestando en tono jocoso que a veces, el intervenir después de la Sra. Peña



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

asko egiten duenean, ez dutela izaten gauza handiegirik gehitzeko. Edonola ere, pozten dira bigarren Plana onartzeaz, eta bereziki pozik daude, zentzu osoan, Errenteriako Ezkerrako ordezkariaren lehenengo hitzekin. Beraz, ezer gutxi dute gehitzeko, eurek ekintza-mota hauek bultzatzen jarraituko dute, eta ildo horretan gogoz lana egiten jarraitzea nahi dute.

(EAJ/PNV) cuando se explaya, les deja sin mucho más que añadir. En todo caso se alegra de que se apruebe este segundo Plan, están especialmente de acuerdo con las primeras palabras del representante de Errenteriako Ezkerra en todo su sentido. Poco más tienen que decir, seguirán apoyando este tipo de acciones y animan a que se siga trabajando en este sentido.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E.BILDU) esan du eurei garrantzitsua iruditzen zaiela Udalbatzak bigarren Plan hau berrestea, nahiz eta formalki ez izan beharrezkoa. Garrantzitsua iruditzen zaie, halaber, Plan hau parte-hartze prozesu batetik sortu izana, non lehenengo Planean egindako lana baloratu baitzen. Izan ere, beronek lagundu zien zein ziren erronka berriak definitzen. Labur bada ere, Plan honetan markaturiko ardatz estrategikoak aitatu nahi ditu. Alegia: gobernu ona, indarkeria matxista desegitea, emakumeak ahalmentzea eta biziaren ardatz nagusia iraunkortasuna izatea. Besteek esan dutenaren inguruan, dio, egia da indarkeria matxista hor dagoen gaitza dela, eta oraindik badagoela lan garrantzitsua egiteko. Alabaina, uste du Udala arlo horretan lan zehatz bat egiten ari dela, eta horregatik agertzen da Plan honen barruan Plan estrategiko gisa. Diagnosi bat egiten ari dira jakiteko herri honetan zein den indarkeria matxistaren egoera, eta abian jartzen ari dira eraso mota hauek jasaten dituzten pertsonekin lanean aritzen diren agente ezberdinen arteko hain beharrezkoa den koordinazioa. Gehitu duenez, alde horretatik, ziur aski asko izango da oraindik egiteke, baina lan garrantzitsua egiten ari direla uste du. Besteek esan duten moduan, uste du, garrantzitsua izango litzakeela azken lau urteetan hemen zer lortu den jakiteko azterlan bat egitea, baita, oro har, gizartean ere, eta gaur egun dituzten erronka berriak hain konplikatua den egoera honetan, emakumeei

* Interviene la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que les parecía importante que el Pleno ratificara la aprobación de este segundo Plan, aunque formalmente no era necesario. Le parece importante que este Plan nace de un proceso participativo, en el que se hizo una valoración del trabajo que se había realizado en el primer Plan y esto les ayudó a definir cuales eran los nuevo retos. Quería mencionar brevemente cuales son los ejes estratégicos que se han marcado en este Plan, que son, el buen gobierno, eliminar la violencia machista, empoderamiento de las mujeres y poner la sostenibilidad en el centro de la vida. En relación a lo que ya se ha dicho, es verdad que la violencia machista es una lacra que existe y que hay todavía un trabajo importante para hacer, pero también es verdad que desde el Ayuntamiento están intentando hacer un trabajo específico en ese tema, por eso aparece como eje estratégico dentro del Plan. Se está elaborando un diagnóstico para conocer cual es la realidad de la violencia machista en el pueblo, y también se está poniendo en marcha esa coordinación tan necesaria entre los diferentes agentes que trabajan con las personas que sufren esta serie de agresiones. En ese aspecto, aunque seguramente habrá mucho que hacer todavía, cree que se está haciendo un trabajo importante. Como se ha dicho, sería importante hacer un estudio de lo que se ha conseguido aquí en estos últimos cuatro años, también en la sociedad en general y de los nuevos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

hainbeste eragiten diena.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

**Berrestea** 2013ko maiatzaren 20ko Alkatetza-dekretua**,** "Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Plana 2013-2016" onartzen duena.

retos que tienen hoy en día con una situación tan complicada que afecta tantísimo a las mujeres.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**A C U E R D A**

**Ratificar** el decreto de Alcaldía de fecha 20 de mayo de 2013 por el que se aprueba el "II. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Errenteria 2013-2016".

**8. Galdera-eskariak.**

Ondorengo galdera-eskariak egin dituzte:

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) Fanderiako presari buruz ondoko galdera egin du: jakin badakite, Auzo Elkarteak gaia eztabaidatu duela, azken aldi honetan egoeraren berri jakiteko idatzi bat ere sartu dutela. Era berean badakite, Hirigintza Batzordean hala esan zietelako, Eguzkik Aldundian idatzi bati sarrera eman ziola, nahiz ez dakiten zenbat denbora daraman han. Orduan, berak jakin nahiko luke zein den egungo egoera eta uda partean berriro egiten hasteko zer nolako aukerak dauden. Izan ere, horrela ez balute egingo, ikusten dute epe laburrean kostua handituko dela, besteak beste, ur-bazterra, baita bidegorria ere, jausi daitezkeelako.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) erantzun du epea ez dela hain laburra, hamar-hamabi urtez hitz egiten ari dutelako eta berak presa lehenago egingo dutela pentsatzen duelako. Haren hitzetan egoera

**8. Ruegos y preguntas.**

Se producen las siguientes intervenciones:

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) formula la siguiente pregunta sobre la presa de Fanderia: les consta que la Asociación de Vecinos ha debatido este tema, incluso ha metido ultimamente un escrito para conocer su situación. Les consta también, porque así se lo trasladaron en la Comisión de Urbanismo, que hay un escrito que ha metido Eguzki en Diputación, aunque no sabe el tiempo que lleva allí. Quiseran saber cual es la situación actual y qué previsiones hay para comenzar su reconstrucción dentro del período estival del que se hablaba, porque de no hacerlo así ven que el coste a corto plazo puede ser bastante mayor, ya que la ribera del río e incluso el bidegorri podrían venirse abajo.

* El Sr. Díez (O.E. BILDU) responde que no es tan a corto plazo, puesto que hablan de diez o doce años y esperan hacer antes la presa. La situación es la siguiente, se sacó a licitación la obra para hacer la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

honelakoxekoa da: presa egiteko obra lehiaketara atera zen, enpresek euren eskaintzak egin dituzte eta 1 zk.ko gutun-azalak ireki zituzten, baina ez dute bigarrena irekiko URA agentziak eta Aldundiaren baimenak iristen ez diren bitartean. Ez dute bigarrena irekiko, zeren eta, egingo balute, obrak nori eman erabaki beharko luketelako, eta espero dute ez gertatzea, baina obra egiteko baimen guztiak ez izatea gerta liteke, eta horrek suposatuko luke esleituriko enpresari kalte-ordain zenbait paga behar izatea obrak ezin izan zituelako egin. Hortaz, bada, baimenen zain daude. Bestalde, URA agentziak esan die Eguzki talde ekologistaren idatzi bat dagoela Obra Hidrauliko Departamentuak eta Agentziak berak azterlan bat egiteko eskatuz, eta Udalari eta talde ekologistari hitz egiteko aukera emango diete. Bere aburuz, behin datuak jasotakoan, ez da egongo inolako arazorik, Aldundiak berak bere bitartekoak jarri dituelako berori egiteko; obra hori egiteko hitzez emaniko baimenak zituzten, eta beraz, orain obrak hasteko ziurtagiri ofizialak iritsi zain daude. Hasi, uda garaian nahiko lituzke hasi, hori delako garairik onena, ur gutxi izaten delako.

presa, las empresas han presentado sus ofertas y se ha abierto el primer sobre, pero no se va a abrir el segundo sobre mientras no lleguen todos los permisos, por parte de la Agencia URA y por parte de Diputación. No se va a abrir el siguiente sobre porque si se hiciera esto, habría que decidir a qué empresa se adjudica la ejecución de las obras y, esperan que no ocurra, pero podría ocurrir que no se obtuviese el permiso para hacer la obra y eso podría suponer que hubiera que enfrentarse a unas posibles indemnizaciones a la empresa adjudicataria por no hacer la obra. Por tanto, están a la espera de los permisos, la Agencia URA les ha dicho que hay un escrito del Grupo Ecologista Eguzki pidiendo que se haga un estudio por parte del Departamento de Obras Hidráulicas y por la propia Agencia y lo que van a hacer es dar audiencia al Ayuntamiento y al Grupo Ecologista. Una vez recogidos los datos, piensa que no habrá ningún problema porque es un proyecto en el que Diputación ha puesto sus medios para realizarlo, tenían los permisos, verbales evidentemente, para llevar esa obra adelante y por tanto ahora están pendientes de que lleguen las certificaciones oficiales para poder comenzar las obras. Lo que quisieran es comenzarlas en la época estival, que es la mejor época para hacerlas porque hay poca agua.

-------------

Jarraian.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du ONGei ematen zaizkien diru-laguntzei buruz beste galdera bat duela egiteko. Izan ere, ez lukete nahiko 2012an gertatu zena jazotzea, eta horregatik jakin nahi dute noiz egingo diren deialdiak, zein data aurreikusi dituzten, zein langilek berrikusiko dituen, hala nola partida horiek adskribatu

----------

Seguidamente.

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) señala que quieren hacer otra pregunta en referencia a las subvenciones a las ONGs. No quisieran que pasara como en el 2012 y por ello quieren saber qué previsiones hay en cuanto a convocar las mismas, qué fechas hay previstas, qué personal administrativo se prevé que las supervise,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

diren departamentua?

así como el Departamento al que se adscriban dichas partidas.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du partida Departamentu jakin bati adskribatuta dagoela. Besterik da -dio- aldatu behar izatea, baina une hauetan dagoena dago. Noiz egingo den, emango zioten konponbidea eman diotenean. Bere iritziz, oraindik garaiz daude eta erantzunak dituztenean, publikoki, inolako eragozpenik gabe, emango dituzte. Hortan ari dira, eta espero dute proposamena laster egin ahal izatea.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que la partida ya está adscrita y lo está a un Departamento concreto, otra cosa es que haya que modificarla, pero en estos momentos existe la que existe. ¿Cuando se va a hacer?, cuando le den la solución que dijeron le iban a dar, todavía andan con tiempo y cuando tengan las respuestas se darán publicamente y sin ningún inconveniente. Están en ello y espera que la propuesta se pueda hacer en breve.

----------

----------

Ondoren.

Seguidamente.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du galdera bat egin nahi zutela herriko gazteek bizi duten egoerari buruz eta duten arazoen inguruan, besteak beste, emantzipatzeko garaian eta prezio egokietan etxebizitza duin bat alokatzeko izan dituztenak. Horrela, iragan 2008ko abenduaren 11n, Udal honek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuarekin lan-hitzarmena bat sinatu zuen Arramendiko 36 sektorean etxebizitzak sustatzeko, eta berorietaz baliatzeko lehentasuna herriko gazteek zuten. 2013ko apirilaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzako Kontseilariordeak bidalitako idatzi bat jaso genuen, Etxebizitza Sozialak Sustatzeko Zerbitzuburuak sinaturikoa. Bertan zioenez, 2012ko apirilaren 19an, promozio hori egiteko udal-baimena eman zela jakinarazten zen, eta une honetan Departamentu horrentzat ez dagoenez lehentasunen artean berori burutzea, uko egiten diotela obra egiteko udal lizentziari. Bere aburuz ere, promozio hori egiten hasteko bide estrategikoa aldatuko balute,

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) señala que querían hacer una tercera pregunta en referencia a la situación en que se encuentran los jóvenes de la Villa y la problemática que tienen, entre otras cosas, a la hora de emanciparse y acceder a una vivienda digna a precios asequibles en régimen de alquiler. El 11 de diciembre de 2008 este Ayuntamiento firmó un convenio de colaboración con el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco para la promoción de alojamientos dotacionales en el Sector 36 de Arramendi, siendo los jóvenes de la Villa sus destinatarios preferentes. Con fecha 16 de abril de 2013 se recibe escrito de la Viceconsejería de la Vivienda del Gobierno Vasco, firmado por el Jefe de Servicio de Promoción Directa de Viviendas Sociales, comunicando que con fecha 19 de abril de 2012 se concedió licencia municipal de obras para la construcción de esta promoción y que como en este momento no es prioridad de ese Departamento llevar a cabo las mismas, renuncian a dicha licencia


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

eurei jakinaraziko zieten dagokien eran. Hortaz, talde Sozialistak jakin nahi du ea Gobernu Taldeak asmoa duen promozio hori mantentzeko, gazteek etxebizitzak alokatzeko beharra dutelako. Era berean, jakin nahi dute Alkateak zer egiteko asmoa duen hitzarmen hori mantentzeko eta promozio hori egiten hasteko.

municipal de obra concedida. Entiende también que en el caso de que se modificase la actual línea estratégica que posibilitase acometer esta promoción se comunicaría oportunamente. El Grupo Socialista desea conocer si el Equipo de Gobierno tiene intención de mantener esa promoción, dada la necesidad de los jóvenes de vivienda en alquiler, y también, qué gestiones va a realizar el Sr. Alcalde para mantener este Convenio y posibilitar que se acometa la promoción.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du galdera berari egin beharrean Eusko Jaurlaritzari egin beharko liokeela, hark bidali duelako gutuna, edo, beharbada, Eusko Jaurlaritzaren alderdi bereko Udalbatzako lankideei. Egindako gestioei dagokionez, berriz, esan behar du egun ere egiten ari direla, hain zuzen aspalditxo Eusko Jaurlaritzari gai hau eta beste bat ikusteko bilera bat eskatu zutelako, nahiz eta oraindik zain dauden. Berak ildo horri jarraitzeko asmoa du, ez du ezer aldatu irizpidearen inguruan. Hori horrela, uste du alojamenduen inguruko aurreko irizpena ere egokia zela. Eurek bide horri eutsiko diote eta saiatuko dira Eusko Jaurlaritzak erantzun bat eman dezan euren planteamenduaren inguruan. Euren planteamendua aurtengo urterako asmoak, bi urterako edo betirako kentzea bada, ba horixe dute argitu beharreko kontua Eusko Jaurlaritzarekin. Eta, berriro dio, gestioak egiten ari direla.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O. E. BILDU) responde que la pregunta, más que al Alcalde, se la debiera dirigir al Gobierno Vasco, que es quien ha enviado esa carta, o quizá a otros compañeros de la Corporación del mismo Partido que el del Gobierno Vasco. En cuanto a las gestiones, ya las están realizando actualmente, solicitaron hace ya bastante tiempo una reunión al Gobierno Vasco con éste y otro tema, y están a la espera de que se la concedan. Su intención es seguir en esa vía, no ha cambiado nada en su criterio, creen que el criterio anterior en cuanto a alojamientos dotacionales también era el adecuado, seguirán en esa vía e intentarán que el Gobierno Vasco les dé una respuesta en cuanto a cual es su planteamiento, si el planteamiento es el de retirar las pretensiones para este año, para dos años o para siempre, y eso es lo que tienen que hablar con el Gobierno Vasco para que lo aclaren. Vuelve a insistir en que las gestiones ya se están realizando.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du, apika, EAJri galdetu beharko niokeela eginiko aipamenaren inguruan, aitatu behar du bere taldeak Eusko Legebiltzarrean egin dituela egin beharreko galderak. Horrek esan nahi du hortan ari direla lanean, han eragin eta egin behar dutelako gehien. Edonola ere, jakin gura zuten Udal honek eta

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) en cuanto al comentario de que a lo mejor tendrían que preguntarlo al PNV, decir que su Grupo ya ha hecho las preguntas correspondientes sobre este tema en el Parlamento Vasco, con lo cual, también están trabajando en ello, puesto que es donde más hay que incidir y hacer, pero en todo

Gobernu Taldeak ematen ari zen bultzada.

caso, también querían saber el impulso que se estaba dando desde el Ayuntamiento y desde el Equipo de Gobierno.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du gai hau lehendik datorrena dela. Edonola ere, beste Eusko Jaurlaritza zenean, ez zuen erakutsi interes gehiegirik alojamendu mota hauek egiteko, bai ordea beste promozio batzuengatik. Berak uste du gauzak bere lekuan jarri behar direla, eta ez dio EAJ/PNV taldeari orain aurpegia ateratzeko asmorik, baina alojamendu-mota horiek sustatzeko garaian gaur arte, ez oraingo Eusko Jaurlaritzak ez lehengoak, ez dira agertu berorien oso alde, nahiz eta oraingoak ez duela egiteko asmorik erantzun duen. Aitzitik, aurrekoa isil-isilik egon zen, eta gai horretaz galdetuta ere, epe laburrera egiteko asmorik ez zutela erantzuten zuen.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) añade que esta cuestión viene de antes, cuando en otra época había otro Gobierno Vasco, aquel tampoco mostró demasiado interés por estos alojamientos dotacionales, sí que lo hizo por otra serie de promociones. Hay que poner las cosas en su justa medida, y no es que le quiera sacar la cara ahora al Grupo EAJ/PNV, pero en cuanto a la promoción de los alojamientos dotacionales, hasta la fecha, ni el Gobierno Vasco anterior, ni el actual, se han mostrado muy favorables, aunque el actual al menos ha respondido diciendo que no tiene intención de llevarlo a cabo. Pero el anterior mantenía un absoluto silencio e incluso preguntado a ese respecto les respondía que no tenía intención de ejecutarlo en breve.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du bere Taldeak aurreko Eusko Jaurlaritzarekin harremanak izan zituela gai hau abian jartzeko, euren aburuz, Errenteriako gazteek etxebizitza horien beharra dutelako. Beraz, gobernua edozein koloretakoa izanda ere, bere Taldea ildo horretan bultzaka ibili da.

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) señala que su Grupo también hizo gestiones con el anterior Gobierno Vasco para que este asunto se pusiera en marcha, porque entienden que los jóvenes de Errenteria necesitan de esas viviendas. Por tanto, sea del color que sea, su Grupo ha estado empujando en ese sentido.

Galdera-eskariak amaitutakoan.

Finalizadas las preguntas.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.